



Parlamento de Navarra
Nafarroako Parlamentua

Deialdia, hautaprobeen bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikarien bi zerrenda osatzekoa: bata, Parlamentuko funtzionarioen prestakuntzarako; eta bestea, aldi baterako administrazio-kontrataziorako.

(Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2022ko apirilaren 11n egindako bilkuran onetsia)

ONETSITAKO IZANGAIENDAKO OHARRA

Izangaiei ohartarazten zaie deialdiko lehen azterketa 2022ko ekainaren 10eko 16:00etan hasiko dela, Nafarroako Unibertsitate Publikoko 214. eta 215. ikasgeletan (Arrosadiako Campusa z/g, Iruña). Bertara NANA, AIZa, pasaportea edo gidabaimena eraman beharko da, nortasuna egiaztatu ahal izateko.

Halaber, adierazten da debeku dela kalkulagailua, telefono mugikorra, erloju adimenduna edo bestelako edozein gailu elektronikoa erabiltzea, zeinak itzalita egon beharko diren. Era berean, erloju adimendunei dagokienez, ez dira ganean eramanen; proba egiten denean itzalita eta gordeta geratuko dira uneoro.

Egungo egoera epidemiologikoan, oro har, NUPen inor ez dago behartuta maskara erabiltzera. Hala eta guztiz ere gomendatzen da, oro har, maskara modu arduratsuan erabiltzea Unibertsitateko instalazioetako barneko eremu partekatuetan, ikasgeletan, esate baterako, bereziki denbora luzean bermatu ezin bada osasun-segurtasuneko distantzia, 1,5 metrokoa, eta aireztapen egokia.

Uneoro gorde egin beharko dira epaimahaiak eta/edo zaintzako langileek ezarritako jarraibideak.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasgelategiko bigarren solairuaren planoak erantsi da

Aulario del Campus de Arrosadía – Arrosadiako Campuseko Ikasgelategia

PLANTA SEGUNDA – BIGARREN SOLAIRUA

